

Untoreak eta mozalaren legea

“L’untore! dagli! dagli! dagli all’untore!”
 (“Koipezatzailea! Jo eta su koipezatzailearekin!”)
 A. Manzoni, *I promessi sposi* (“Ezkongaiak”), 1827

Kutsatzaile” kontzeptua, medikuntza hipokratikoak ezagutzen ez zuena, azken mendeetako izurriteekin finkatu da. Eta agintarien neurriek eta kanpainek gizabanako bakoitza kutsatu potentzial bihurtzen dute, terrorismoaz arduratzen direnek herritar bakoitza terrorista potentzialtzat hartzen duten bezalaxe. Aginduak betetzen ez dituen kutsatu potentziala, kartzelarekin da zigortua. Bada, gainera, eramaile osasuntsu edo goiztiarraren soslaia. Eramaille osasuntsu horrek jende ugari kutsatu lezake eta horrek bihurtzen du are arriskutsuago.

“Normaltasun berrira” eta “txertoaren zain” gauden honetan, denok gabiltza elkarren zelatari, nork bete-

tzen edo hausten dituen agintariak edo norberak ezinbestekotzat jotzen dituen arauak. Gerra sasoiaren bezala, sintoma paranoikoak garatzen.

Mozala objektu bereizgarri egin zaigun honetan, ezin ahantzi urteetan eta hamarkadatan sustatu dugun eztabaida sutua: “Onargarria al da emakume islamiarrak aurpegia eta gorputza estalita –burka, burkini, niqab, txador, al-amira, hijab, xaila...– gure artean ibiltzea? Zer da estalki horiekin estaltzen dutena; zeren edo noren izenean; zeren edo noren aurka; zeren edo noren aginduz?” Entzuna dugu Txinan lintxamenduak gertatu direla pandemia hedatu ondoren, norbait kalean mozalik gabe zebilelako... Ez dira txantxetarako kontuak.

Bestalde, asko kexatu gara azken bost urteetan Espainiako Gobernuak indarrean jarri duen *Mozal-Legea*-gatik, hemengo poliziek hain gogo onez bete arazi dutena. Baina, harrigarriki, badirudi denok gaudela prest onartzeko zerbait are badaezpadakoa, eta justifikazio zientifiko edo arrazional oso zalantzaragarria duena. Moda diseinatzaileak hasi dira haien bilduma berrietarako prestatzen: horra azken muga beldurgarria.

Orain gutxi arte arbuia garria zena, otzanki onartzen dugu kutun magiko baten modura. “Infernua besteak zirela” aspaldian genekien, baina obediencia-bulkada batez, urrunago nahi dugu iritsi oraingoan: “Ez ukitu, ez besarkatu, ez hurbildu; ezta zure burua ere, zeu baitzara duzun etsairik zitalena!”

Gogoratzen al duzue ez horren aspaldian hedatu zen “besarkadak musutruk” kanpaina xelebrea? Daramagun bidetik segitzen badugu, berehala hasiko dira zurrumurruak: badirela oihanetako leku ezkutuetan non jendea elkartzen den legeak hautsi eta elkarri eskua emateko, edo besarkatzeko edo musukatzeko... Eta ongi dakigu zertan amaitzen diren kontu lizun horiek guztiak!